

DEKALOGOA: ESALDIEN EGITURAK

1. Hautatu bikoteko esaldi zuzenena.

1. bikotea

- Informazioa partekatu aurretik iturria egiaztatu.
- Informazioa partekatu aurretik iturria egiaztatzea komeni da.

2. bikotea

- Sare sozialetan hizkuntza errespetuzkoa erabili.
- Sare sozialetan hizkuntza errespetuzkoa erabiltzea garrantzitsua da.

3. bikotea

- Datu pertsonalak ingurune digitalean arduraz kudeatu.
- Datu pertsonalak ingurune digitalean arduraz kudeatzea beharrezkoa da.

4. bikotea

- Albiste osoa irakurri, titularrean bakarrik gelditu gabe.
- Albiste osoa irakurtzea komeni da, titularrean bakarrik ez gelditzeko.

5. bikotea

- Ez partekatu eduki susmagarriak sare sozialetan.
- Eduki susmagarriak sare sozialetan partekatu aurretik aztertu.

6. bikotea

- Erabili adimen artifiziale modu arduratsuan eta etikoan.
- Garrantzitsua da adimen artifiziale modu arduratsuan eta etikoan erabiltzea.

7. bikotea

- Informazioa iturri desberdinetan kontrastatu.
- Informazioa iturri desberdinetan kontrastatzea praktika egokia da.

8. bikotea

- Ez fidatu sarean aurkitzen duzun lehen informazioaz.
- Sarean aurkitzen duzun informazioa zalantzan jarri.

9. bikotea

- Irudi baten testuingurua aztertu partekatu aurretik.
- Irudi baten testuingurua aztertzea gomendagarria da partekatu aurretik.

10. bikotea

- **Erabili** pasahitz sendoak kontu digitaletan.
- Pasahitz sendoak erabiltzea komenigarria da kontu digitaletan.

2. Zein da dekalogo baterako egiturarik gomendagarriena?